



EBAZPENA, 2026ko MARTXOAREN 3koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN DEN 2026ko URTARRILAREN 24ko EBAZPENA, IRAKASLE ELKARTUEN KONTRATUAK ESLEITZEKO LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEKOA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa. - 2026ko otsailaren 24ko ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean arduraldi partzialeko irakasle elkartuen kontratuak esleitzeko.

Aipatutako deialdian, ondoren aipatzen den unibertsitate barruko kodeak dituzten plaza ageri da:

- AUP4L1 - D00095 – 51 (Deialdi zenbakia: 155) Estomatologia jakintza arlokoa.

Bigarrena. Antzeman da aipatutako plaza errakuntza dela medio dei egin dela. Hortaz, aipatutako plazaren orde, AUP4L1-D00095-55 kodeko plaza (deialdi zenbakia: 171), Estomatologia jakintza arlokoa.

Ondoko jarduera hauek gehitu dira AUP4L1-D00095-55 plazan burutu beharrekoen artean:

- Farmakologia Aplikatua eta Larrialdiak Odontologian
- Aho Patologia eta Medikuntza II
- Helduen Praktika Integratua I
- Helduen Praktika Integratua II

Hirugarrena. - Era berean, argitu egin da Estomatologia saileko plaza guztietarako gradu, lizentziatu, ingeniari zein arkitektoaren gutxieneko titulazioa eskatzen dela.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. - Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, ebazpen hau emateko, hala xedatzen baitu Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakiak, gobernu taldeko kideen ordezkapenei buruzkoak.

Bigarrena. - 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honako hau dio 109.2 artikuluan: ***“Administrazio publikoek edozein unetan zuzen ditzakete, ofizioz edo***



interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.”

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. Egoztea deialditik Estomatologia saileko AUP4L1-D00095-51 plaza eta, bere orde, AUP4L1-D00095-55 plaza gehitzea.

Bigarrena. - Ondoko jarduera hauek gehitu dira AUP4L1-D00095-55 plazan burutu beharrekoen artean:

- Farmakologia Aplikatua eta Larrialdiak Odontologian
- Aho Patologia eta Medikuntza II
- Helduen Praktika Integratua I
- Helduen Praktika Integratua II

Hirugarrena. Argitzea ezen Estomatologia saileko plaza guztietarako gradu, lizentziatu, ingeniari zein arkitektoaren gutxieneko titulazioa eskatzen dela.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiokete EHUko Irakasle-ikertzaileen errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.

Leioan, 2026ko martxoaren 3an.

Sin.: Efren Areskurrinaga Mirandona
IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEA